# FAKTURA ELEKTRONIKOAK FAKTURARABAREKIN EGITEARI BURUZKO GALDERAK

**EDUKIA**

1.- Zer da faktura elektroniko bat? 3

2.-Faktura elektronikoak egin daitezke FakturArabarekin? 3

3.- FakturAraba aplikazioarekin faktura elektronikoak egiteko kontuan hartu beharreko argibideak. 3

4.-Zein datu bete behar dira nahitaez faktura bat jaulkitzeko, hartzailea administrazio publiko bada? 3

5.-Zer gertatzen da faktura elektronikoa FakturAraban sinatu ondoren? 4

6.-TicketBAI fitxategia faktura elektronikoa da? 4

7.- Faktura elektronikoaren PDF fitxategia sortzen da? 4

8.- Nola bidali dezaket faktura elektronikoa FakturArabaren bidez? 4

9.- Sinatu daitezke fakturak gailu ziurtagiriarekin eta/edo Izenperen autonomo ziurtagiriarekin? 4

10.-Zein dira faktura elektronikoaren eta TicketBAI fitxategiaren bidalketaren egoerak? 5

11.-Zer errore gerta daitezke faktura elektronikoa FakturArabaren bidez bidaltzean? 5

12.- Baliogabetu daiteke faktura elektroniko bat?? 5

13- Zeintzuk dira faktura elektronikoaren bidalketa automatizatua eragozten duten errore kodeak? 6

14- ¿ Zer egin fakturaren jasotzaileari buruzko 406 errorea Arabako Foru Aldundiari edo haren erakunde autonomoren bati buruzkoa bada? 7

## 1.- Zer da faktura elektroniko bat?

Zerga dokumentu bat da, formatu elektronikokoa, bitarteko informatikoak erabiliz sortua, paperezko dokumentu fisikoaren ordezkoa eta paperezkoaren legezko balio berekoa. Faktura elektronikoak paperezko/PDF formatuko fakturaren datu berberak ditu, eta elektronikoki sinatzen da, ziurtagiri digital aitortu baten bidez.

## 2.- Faktura elektronikoak egin daitezke FakturArabarekin?

Bai, hemendik aurrera, FakturAraba aplikazioak funtzionalitate berri bat edukiko du, **TicketBAI betebeharrak eta faktura elektronikoaren jaulkipena batera betetzeko aukera emango duena**, hartzailea administrazio publiko bat izan zein ez.

Faktura elektronikoak Facturae formatuan egingo dira.

Horrela, zergadunek faktura elektronikoak zuzenean sortu eta igorri ahal izango dituzte aplikazioaren bidez, eta, hala, fakturazio prozesua sinplifikatuko da eta indarrean dauden lege baldintzak betetzen direla bermatuko da eragiketa bakar batean.

## 3.- FakturAraba aplikazioarekin faktura elektronikoak egiteko kontuan hartu beharreko argibideak.

- Baliteke fakturaren hartzaile den erakundeak eskatzea jaulkitzaileak aldez aurretik alta emateko, hornitzaile gisa faktura elektronikoak bidali ahal izateko. Gai horri buruz hartzaileak duen dokumentazioa aztertu beharko da, edo harekin harremanetan jarri.

- BakQ ziurtagiria erabili nahi izanez gero faktura elektronikoak sinatzeko, prozesua bizkortu daiteke Izenperen Txartel Birtuala erabiliz. Hemen deskargatu daiteke: https://www.izenpe.eus/txartel-birtuala/webize00-cnciudadania/eu. Horrekin, nahikoa da behin identifikatzea, eta ez da beharrezkoa pasahitza sartzea sinatu behar den bakoitzean. Aukera horrek faktura ez-elektronikoetarako ere balio du.

- "Hartzaileak faktura elektronikoak jasotzeko aukera ematen du" botoia aktibatuta egon behar da FakturArabako bezeroaren ezarpenetan.

- Kontuan hartu behar da FakturArabarekin sortzen den faktura elektronikoari EZIN zaiola fitxategirik erantsi.

## 4.- Zein datu bete behar dira nahitaez faktura bat jaulkitzeko, hartzailea administrazio publiko bada?

DIR3 datuak bete behar dira (Kontratatzailearen datuak: kontabilitate bulegoa, organo kudeatzailea eta unitate izapidegilea). Kasu jakin batzuetan, datu horiek "Bidalketa automatizaturako erakundeak" ataletik inportatu ahal izango dira. Bestela, DIR 3 datuak bezeroak (administrazioa) eman behar ditu.

Gainera, fakturaren oinean nahitaez bete behar dira **"Ordainketa mota", "Mugaeguna" eta "Ordainketaren zenbatekoa"** eremuak. Ordainketa mota "ordainagiri helbideratua" edo "transferentzia" bada, fakturaren jaulkitzailearen banku kontua (IBAN) adierazi behar da. Gainerako hartzaileentzat aukerakoa izango da.

Jaulkitzailearen banku kontuaren datuak (IBAN) "Jaulkitzailearen datuak" ataletan sartu behar dira.

"Eskaera kodea", "Kontratu kodea" edo "Espediente zenbakia" eremuak bezeroak (administrazio publikoa izan ala ez) hala eskatzen badu edo faktura jaulkitzaileak egokitzat jotzen badu bakarrik bete beharko dira.

### 5.- Zer gertatzen da faktura elektronikoa FakturAraban sinatu ondoren?

Faktura sinatu ondoren, FakturArabak honako ekintza hauek egingo ditu automatikoki:

- **Faktura elektronikoa sortuko du, eta,**
  - fakturaren hartzailea "Bidalketa automatizaturako erakundeak" zerrendan badago, faktura automatikoki bidaliko dio.
  - hartzailea zerrendan ez badago, faktura adierazten den helbide elektronikora bidaltzeko aukera emango du.
  - Edonola ere, faktura elektronikoa deskargatu eta beste bitarteko baten bidez bidali ahal izango da.
- **TBAI fitxategia sortu eta Arabako Foru Ogasunera bidaliko du.** Izan gogoan: TicketBAI fitxategia EZ da faktura elektroniko bat.
- **Faktura elektronikoaren PDF fitxategia sortuko du.**

### 6- TicketBAI fitxategia faktura elektronikoa da?

Ez, sortzen den TicketBAI fitxategia eta faktura elektronikoa bi dokumentu ezberdin dira.

TicketBAI fitxategia fakturan jasotako zerga informazioa bildu eta ARABAKO Foru Ogasunera bidaltzen duen fitxategi bat da, eta faktura elektronikoa bezeroari bidali behar zaion faktura da.

### 7.- Faktura elektronikoaren PDF fitxategia sortzen da?

Bai, faktura elektronikoaren PDF fitxategia sortzen da, errazago interpretatu ahal izateko. EZ da faktura elektronikoa. Faktura elektronikoarekin batera bidaltzen den dokumentu bat da, eta gerora ere deskarga daiteke.

### 8.- Nola bidali dezaket faktura elektronikoa FakturArabaren bidez?

Bidaltzeko zenbait aukera daude:

1.- Fakturaren elektronikoaren hartzailea "Bidalketa automatizaturako erakundeak" zerrendan badago, faktura automatikoki bidaliko zaio sinatzean.

2.- Hartzailea zerrenda horretan ez badago, faktura elektronikoa sinatu ondoren mezu bat agertuko da, faktura elektronikoa bidali nahi izanez gero helbide elektroniko bat jartzeko.

3.- Beste bidalketa modu bat aukeratuz gero, faktura elektronikoaren fitxategia deskargatu eta bidali daiteke, posta elektronikoz edo bezeroak adierazitako beste bitarteko batzuen bidez.

### 9.- Sinatu daitezke fakturak gailu ziurtagiriarekin eta/edo Izenperen autonomo ziurtagiriarekin?

Ez, horiek ziurtagiri ez-kualifikatuak dira, eta ezin dira faktura elektronikoak sinatzeko erabili.

Fakturak sinadura ziurtagiri elektroniko kualifikatua batekin sinatu behar dira, FakturArabako aplikaziora sartzeko egin behar den bezala, hala nola: NAN elektronikoa, Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionala, BAKQ gakoa.

## 10.- Zein dira faktura elektronikoaren eta TicketBAI fitxategiaren bidalketaren egoerak?

FakturAraba aplikazioan egiazta dezakezu faktura elektronikoaren bidalketaren egoera, "Fakturak kontsultatzea" atalean:

- Faktura elektronikoaren egoerak:
    - Dagokion erakundeari errorerik gabe bidalita. "Bidalita" markatuta agertuko da, baldin eta faktura elektronikoa eta TBAI fitxategia bidali badira.
    - Faktura elektronikoa bidaltzean errorerik izanez gero (ez TicketBAI fitxategian), "Faktura elektronikoa bidaltzeke" atalean agertuko da. Erroreak hauek izan daitezke:
        a) Jaulkitzailearen edo hartzailearen errore teknikoak (konektibitate falta, baimen falta, etab.) edo faktura elektronikoaren beraren edo haren eranskinen akatsak.
        b) Batzuetan, errorea gertatzen da administrazioak behartu egiten duelako jaulkitzailea/hornitzailea bere aplikazioetan alta emanda egotera baina erregistro hori ez dagoelako eginda.
- TicketBAI fitxategiaren egoerak:
    - Bidalita: Bidalitakoetan agertuko da, baldin eta faktura elektronikoa eta TBAI fitxategia bidali badira.
    - Bidaltzeke: Unean uneko konektibitate arazo batengatik izan ohi da. TicketBai fitxategia "Bidaltzeke" markatuta agertuko da.

## 11.- Zer errore gerta daitezke faktura elektronikoa FakturArabaren bidez bidaltzean?

Bi XML fitxategi bidaltzen dira: bat TicketBAI betebeharra betetzeko eta bestea faktura elektronikorako. Horregatik, hauek izan daitezke erroreak:

1. TicketBairekin lotutako erroreak:

TicketBAI fitxategia Arabako Foru Aldundiari bidaltzeari eragiten diotenak dira. Kasu horietan, laguntza jasotzeko, TicketBAIko laguntza zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan, **945 569 028** telefono zenbakira deituz edo **ticketBAI@araba.eus** helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.

2. Faktura elektronikoarekin lotutako erroreak:

Faktura elektronikoa jasotzaileari bidaltzea eragozten dutenak dira. Halakoetan, "Faktura elektronikoa bidaltzeke" egoera agertuko da fakturan. Kasu horietan, laguntza jasotzeko, faktura elektronikorako laguntza zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan, **945 569 028** telefono zenbakira deituz edo **egoitza.sede@araba.eus** helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.

## 12.- Baliogabetu daiteke faktura elektroniko bat?

Bai. Jaulkitako faktura elektronikoak aplikazioan bertan baliogabetu ahal izango dira, baldin eta aplikatzekoa den araudia betetzen bada.

Halakoetan, TicketBAI fitxategia eta faktura elektronikoa baliogabetuko dira.

Alabaina, baliogabetzea ez zaio administrazio hartzaileari jakinaraziko, eta, beraz, faktura egin duen pertsonak jarri beharko du zuzenean harekin harremanetan baliogabetzearen berri emateko.

## 13.- Zeintzuk dira faktura elektronikoaren bidalketa automatizatua eragozten duten errore kodeak?

Fakturak jasotzen dituzten administrazio publikoek faktura elektronikoa zuzenean haien interneteko atarira igotzeko aukera eskaini ohi dute, edo faktura bidaltzeko beste bitarteko batzuk erabiltzeko aukera (adibidez, posta elektronikoa). Horretarako, faktura elektronikoa jaitsi daiteke FakturAraban, "Fakturak kontsultatzea"-"Faktura elektronikoa bidaltzeke" atalean, "Jaitsi faktura elektronikoa" aukera hautatuta.

- **401/404 kodeak: konexio arazo teknikoak**

  *401 Baimendu gabea
  *404 Bideratzailea erorita

Faktura elektronikoa bidaltzeko zerbitzuak arazo teknikoren bat izan badu, itxaron minutu batzuk eta saiatu berriro. Arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan kontsulta teknikoen zerbitzuarekin (gorabehera informatikoak), **945 569 028** telefonora deituz edo posta elektroniko bat bidaliz **egoitza.sede@araba.eus** helbidera, eta jakinarazi zer errore kode jaso duzun.

- **405/408/500 kodeak**

  *405 Errorea fakturaren hartzailearen zerbitzura deitzean
  *408 Hartzailearen errore teknikoa
  *500 Bideratzailearen errore teknikoa

Faktura elektronikoa bidaltzeko zerbitzuak arazo teknikoren bat izan badu, jarri harremanetan posta elektroniko honen bidez: **egoitza.sede@araba.eus**.Komeni da mezuan hauek adieraztea:

1. Jaulkitzailearen IFZ
2. Hartzailearen IFZ
3. Errorearen deskribapena edo pantaila irudia
4. Bidalketaren data eta ordua

- **400-404/407 kodeak: hartzailearen informazioari buruzko kodeak**

  *400-404 Ez dago informaziorik hartzaile horren IFZrako
  *400-407 Hartzaile ez-integratua. Ez dago bidaltzeko erregistratutako hartzaileen zerrendan.

- **400-406 kodeak: fakturaren hartzailearen erroreei buruzko kodeak**

Baliteke fakturaren hartzaile den erakundeak eskatzea jaulkitzaileak aldez aurretik alta emateko, hornitzaile gisa faktura elektronikoak bidali ahal izateko. Egiaztatu, mesedez, gai horri buruz administrazio publiko hartzaileak duen dokumentazioa, edo jarri harremanetan harekin.

Fakturak jasotzen dituzten erakundeek faktura elektronikoa zuzenean haien interneteko atarira igotzeko aukera eskaini ohi dute, edo faktura bidaltzeko beste bitarteko batzuk erabiltzeko aukera (adibidez, posta elektronikoa). Horretarako, faktura elektronikoa jaitsi daiteke FakturAraban, "Fakturak kontsultatzea"-"Faktura elektronikoa bidaltzeke" atalean, "Jaitsi faktura elektronikoa" aukera hautatuta, eta faktura elektronikoa bidalitako gisa eskuz markatzeko aukera ere badago, "Markatu bidalitako gisa" aukera hautatuta.

Jasotako errore testua zure hornitzaileak baliozkotzat jotzen ez duen fakturaren daturen bati badagokio, faktura baliogabetu dezakezu, edo faktura zuzentzaile bat egin, FakturAraba aplikazioaren bidez.

Arazoak bere horretan badirau, errore tekniko bat dagoelako, jarri harremanetan kontsulta teknikoen zerbitzuarekin (gorabehera informatikoak), **945 569 028** telefonora deituz edo posta elektroniko bat bidaliz **egoitza.sede@araba.eus** helbidera, eta jakinarazi zer errore kode jaso duzun.

### 14- Zer egin fakturaren jasotzaileari buruzko 406 errorea Arabako Foru Aldundiari edo haren erakunde autonomoren bati buruzkoa bada?

Jaulkitzaileak faktura elektronikoak bidali ahal izateko, aldez aurretik hornitzaile gisa alta emateko eskatzen du fakturaren hartzaile den erakundeak. Egiaztatu, mesedez, gai horri buruzko dokumentazioa, **incidencias.efaktura@araba.eus** helbide elektronikoaren bidez zuzenean.